



## **GABON KANTAK**

- 1- Oilarrak kanta-kantari**
- 2- Gaueko Izar**
- 3- Hator-Hator**
- 4- Gau erdian Soinua**
- 5- Horra Mari Domingi**
- 6- Alaken**
- 7- Gau Ixila**
- 8- Olentzero**
- 9- Din-Dan-Don**

## **(1) OILARRAK KANTARI**

OILARRA KANTA KANTARI

KUKURRU KUKURRUKU

KALEJIRAN DABILTZA

KUKURRU KUKURRUKU

EGUERRI GAUA OSPATZEN

KUKURRUKU KUKURRUKU

JESUS JAIO DA BELENEN

KUKURRU KUKURRUKU

ATZETIK TXITOAK ERE

PIO PIO PIO PIO

AURREKOAK EZIN SEGI

PIO PIO PIOKA

EGUERRI GAUA OSPATZEN

PIO PIO PIO PIO

JESUS JAIO DA BELENEN

PIO PIO PIOKA

## **(2) GAUEKO IZAR**

GAUEKO IZAR ARGITSUENA  
PIZTUTZEAREKIN BATERA,  
HAURTXO EDER BAT ETORRI ZAIGU  
GAUR ARRATSEAN ETXERA

ORDU EZKERO ETXEKO DENAK  
POZTU TA ZORATZEN GERA,  
HAURRA DELAKO ZERUTIK HONUNTZ  
DATORREN JAINKO BERBERA (BIS)

ALAI TA POZIK KANTA DEZAGUN  
HAURTXO HONEN ETORRERA  
GURE ILUNA ALAITUTZEKO  
JAIO DA ARGI EDERRA

GAURTIK AURRERA ATZERRI HONETAN  
ZORIONEKOAK GERA,  
HAURRA DELAKO ZERUTIK HONUNTZ  
DATORREN JAINKO BERBERA (BIS)

### **(3) HATOR HATOR**

HATOR HATOR MUTIL ETXERA  
GAZTAINA XIMELAK JATERA  
GABON GAUA OSPATUTZEKO  
AITAREN TA AMAREN ONDOAN  
IKUSIKO DUK AITA BARREZKA  
AMA ERE POZ ATSEGINEZ

ERAGIOK MUTIL  
AURREKO DANBOLIN HORRI  
GAZTAINAK ERRE ARTIAN  
GAZTAINAK ERRE ARTIAN  
TXIPLI, TXAPLA, PUN!  
GABON GAUA  
POZIK IGARO DAIGUN.

## **(4) GAU ERDIAN SOINUA**

DENA ILUNPEAN DAGO, GABEAN,  
GABEAN  
ELURTIAN BALTZA, BALTZA  
ZERUTIK LURRERA, GABON GABON (BIS)

HIRU ERREGE ARTZAITXO PILO BAT  
BELENGO POZ ZURIAN  
AITA SAN JOSE, AMA MARIA  
ETA HAUR JAIO BERRIA

GORA JAINKOA ZERU ZABALEAN  
TA PAKEA LURREAN  
ZUEK ETA GU GABILTZ AURRERA  
ONDO MAITATZEN BA GERA

ZAZPI AINGERUTXO DATOZ, ETXERA,  
ETXERA  
ESNATU ZAITEZTE DANOK  
GAU ERDIAN GERA, GABON, GABON (BIS)

## **(5) HORRRA MARI DOMINGI**

HORRA MARI DOMINGI BEGIRA HORRI,  
GUREKIN NAHI DUELA BELENA ETORRI,  
GUREKIN NAHI BADEZU BELENA ETORRI,  
ATERA BEHARKO DEZU GONA ZAHAR HORI.

HATOZ, HATOZ, ZURE BILA NENBILEN NI,  
HATOZ, HATOZ, ZURE BILA NENBILEN NI.

HATOZ GOAZEN ADORA DEZAGUN  
BELENEN JAIO DEN HAUR EDER HORI,  
HAUR EDER HORI.

IRRINTZI ETA POZA ALGARAREKIN,  
HORI BEHAR DINAGU GUK ALKARREKIN,  
POZEZ ADORA ZAGUN JESUS HAUR HONI,  
BERAK EMAN DEZAGUN GAUR ZORIONI.

HATOZ, HATOZ, ZURE BILA NENBILEN NI,  
HATOZ, HATOZ, ZURE BILA NENBILEN NI.

HATOZ GOAZEN ADORA DEZAGUN  
BELENEN JAIO DEN HAUR EDER HORI,  
HAUR EDER HORI.

## **(6) ALAKEN**

ALAKEN, ALAKEN  
ALA PIKULA TUNPAIRE  
ERRESPUN DELA PIKULA TUNPA  
JESUS MARIA JAINKOA ZEN (BIS)

ADISKIDEOK IKUSI DEZUTE  
ZELAI HORIETAN ARTZAINAK  
ARTZAI TXIKI, ARTZAIN HAUNDI  
ARTZAIN MUTUR LEUNAK

ALAKEN, ALAKEN  
ALA PIKULA TUNPAIRE  
ERRESPUN DELA PIKULA TUNPA  
JESUS MARIA JAINKOA ZEN (BIS)

## **(7) GAU IXILA**

GAU IXILA, GAU DONEA  
DENAK LO, BAKARRIK  
SENAR EMAZTE DEUNAK ERNAI  
ILE KIZKURDUN HAURT XO  
EDERRARI  
LO, LO HAURT XOT XU LO (BIS)

HAURT XO MAITE  
NOLA ZAUDE?  
SEASKAN NEGARREZ  
ATOZ, BAI, NIRE BIHOTZERA  
ATOZ, BAI LO LO EGITERA  
ABESTI MAITALEZ (BIS)



## **(8) OLENTZERO**

OLENTZERO JOAN ZAIGU MENDIRA LANERA  
INTENTZIOAREKIN IKATZ EGITERA  
ADITU DUENIAN JESUS JAIO DALA  
LAISTERKA ETORRI DA BERRI EMATERA

HORRA, HORRA, GURE OLENTZERO  
PIPA HORTZETAN DUELA ESERITA DAGO  
KAPOIAK ERE BADITU ARRAUTZATXUAKIN  
BIHAR MERIENDATZEKO BOTILA ARDUAKIN

OLENTZERO BURU HANDIA  
ENTENDIMENTUZ JANTZIA  
BART ARRATSEAN EDAN OMEN DU  
HAMAR ARROAKO ZAGIA

AI URDE TRIPA HANDIA  
LARALA LA LA LARALA LA LA (BIS)

OLENTZERO GURIA EZIN DEGU ASE  
BAKARRIK JAN DIZKIGU HAMAR TXERRI GAZTE  
SAIHESKI TA SOLOMO MAKINA BAT HESTE  
JESUS JAIO DA ETA KONSOLA ZAITEZTE

HORRA, HORRA, GURE OLENTZERO  
PIPA HORTZETAN DUELA ESERITA DAGO  
KAPOIAK ERE BADITU ARRAUTZATXUAKIN  
BIHAR MERIENDATZEKO BOTILA ARDUAKIN

## **(9) DIN DAN DON**

DIN DAN DON, DIN DAN DON  
EGUBERRI ON, ZORION, ZORION  
GABONAK DIRA, HEY!

DIN DAN DON, DIN DAN DON  
EGUBERRI ON, ZORION, ZORION  
GABONAK GABON

DENOK DEZAGULA JAIALDI HONETAN  
ZORION BETEA GURE ETXEETAN  
PAKEA DADILA GIZA LEGEETAN  
GRAZI UGARI BETI GURE BIHOTZEAN,  
BAI!

DIN, DAN, DON...

**GABON ZORIONTXUAK OPA**  
**DIZKIZUEGU ETA URTE - BERRI ON!!!**